

## Idazkaria:

- Cristina Zorrilla Merino andrea.
- (Ordezkoa: Llanos Olivas Lagunilla andrea).

## Langileak ordezkatzuz:

## Bokalak:

- Jon Larrea Arrutia jauna.
- (Ordezkoa: José Luís Abasolo Roca jauna).
- Gonzalo Lopez Arroyo jauna.
- (Ordezkoa: Julen Mendiburu Almandoz jauna).
- José Francisco Ponce Lazkano jauna.
- (Ordezkoa: Oscar Garcia Fernandez jauna).
- Julio Albizua Aspizua jauna.
- (Ordezkoa: Mikel Muerza Ullibarri jauna).

## AZKEN XEDAPENA

Herrizaingo Saileko Seguritasun Administrazioako Laguntza Zerbitzuetako lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboa argitaratzen denean izango du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko martxoaren 28a.

Herrizaingo sailburua,  
JAVIER BALZA AGUILERA.

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-1937

AGINDUA, 2001eko martxoaren 21ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, bizitzan zeharreko ikaskuntza jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen abenduaren 26ko 284/2000 Dekretuan jasotako laguntzak eskatzeko 2001eko epea ezartzeko dena.

Bizitzan zeharreko ikaskuntza jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen abenduaren 26ko 284/2000 Dekretua abenduaren 30eko Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (249 zk.). Dekretu horren bidez, laguntzen esparru bat ezarri zen, Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren bidez, diru-laguntzak eman zitzaizkien. Dekretu horretan jasotako diru-laguntzak, hain zuzen ere, erabiliko dira ezagutzaren edozein esparrutan gauzatutako ikaskuntza erabilgarriko jarduerak garatzeko; jarduera horiek bizitzan zeharreko ikaskuntzaren testuinguruan kokatu behar dira, eta enplegua lortzeko gaitasuna handi-

## Secretaria:

- Dña. Cristina Zorrilla Merino.
- (Suplente: Dña. Llanos Olivas Lagunilla).

## En representación del personal:

## Vocales:

- D. Jon Larrea Arrutia.
- (Suplente: D. José Luís Abasolo Roca).
- D. Gonzalo Lopez Arroyo.
- (Suplente: D. Julen Mendiburu Almandoz).
- D. José Francisco Ponce Lazkano.
- (Suplente: D. Oscar Garcia Fernandez).
- D. Julio Albizua Aspizua.
- (Suplente: D. Mikel Muerza Ullibarri).

## DISPOSICIÓN FINAL.

La presente Orden surtirá efectos a partir de la publicación del Convenio colectivo del personal laboral de los Servicios Auxiliares de la Administración de Seguridad del Departamento de Interior.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de marzo de 2001.

El Consejero de Interior,  
JAVIER BALZA AGUILERA.

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### Nº-1937

ORDEN de 21 de marzo de 2001, del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, por la que se procede a publicar la vigencia durante el año 2001 de las actuaciones subvencionales contenidas en el Decreto 284/2000, de 26 diciembre, por el que se regulan ayudas para la realización de actuaciones referidas al Aprendizaje a lo largo de toda la vida.

Mediante el Decreto 284/2000, de 26 diciembre, por el que se regulan ayudas para la realización de actuaciones referidas al aprendizaje a lo largo de toda la vida, publicado en el BOPV n.º 249, de 30 de diciembre, se procedió a establecer el marco de ayudas que el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, ha puesto en práctica para subvencionar aquellas actuaciones que se lleven a cabo para desarrollar actividades de aprendizaje útil realizadas en cualquier ámbito del conocimiento, en el contexto del aprendizaje a lo largo de toda la vida, con la finalidad de aumentar la empleabilidad mejorando las

tzeko balio behar dute, 25 urtetik gorako langabetuen, landunen eta jarduerarik gabeko pertsonen lanbide-gaitasunak, trebetasunak eta dohain horizontalak eta zehar dohainak hobetuz; eta halaxe jaso da, 2001. urterako, Europar Batasuneko Kontseiluak bertako estatuetako enplegu-politikentzat proposatutako gidalerrotan. Esparru horretan ez dira sartzen Hobetuz, Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua-Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak 2001erako egindako deialdian sar zitezkeen pertsona landunak, Euskal Autonomia Erkidegoko Etengabeko Prestakuntzari buruzko Lanbidearteko Akordioaren markoan eta Etengabeko Prestakuntzarako Lanbidearteko Hiruko Akordioaren markoan. Akordio horiek, bestalde, irailaren 28an hartu ziren Eusko Jaurlaritzak, Enpresa eta Sindikatuen artean.

Ikaskuntza iraunkorreko jarduerak erakunde arteko jarduketaren helburu izan daitezke, gizarte eragileen partaidetza izan dezakete eta bi motakoak izan daitezke. Batetik, bizitzan zeharreko ikaskuntza ekimen, ekintza edo jarduera espezifikoiari buruzkoak. Norbanako interesatuak bil daitezke proiektu mota horretara. Mota horretakoak dira besteak beste norbanakoen ikaskuntza kontuei (Learning Account) buruzko jarduketak eta gizarteratze-txekeak. Bestetik, toki edo eskualdeko ikaskuntza ekimen, ekintza edo jarduketak garatu eta sustatzen dituztenak, baldin eta enplegu zentrotzat jotako orientazio zerbitzuek aurkeztu badituzte eta lan proaktiboa egiten badute ikaskuntza mota horretako eskaintza eta eskariari dagokionez.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen. Testu bateginean ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomia-ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorrak indarrean jartzen direnean diru-laguntzak emateko arauak eguneratu nahiz berrikusiko dira, edo, behar izanez gero, arau berriak ezarriko dira, eta, orobat, zehaztugabeko indarraldia eman zitzaizen diru-laguntzak iragarriko dira.

Irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuak, bestalde, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen Testu Bategina onartu zuen, eta 128 b) artikuluan jartzen duenez, aurrekontuak luzapen-aldian daudela Jaurlaritzak eragiketa arruntetarako nahiz kapital-eragiketarako diru-laguntzak eman ahal izango ditu, baldin eta indarrean dauden xedapenek eta hitzarmenek horretarako bide ematen badute. Xedapen eta hitzarmen horietan daude ezarrita, hain zuzen ere, eman daitezkeen zenbatekoak eta bete beharreko baldintzak.

Abenduaren 26ko 284/2000 Dekretuak jasotzen dituen diru-laguntzak indarraldi mugagabea edo mugarik ez dutenez, agindu hau EHAA-n argitaratuko da. Izan ere, herri administrazioak ematen dituen diru-laguntzetan publizitate-printzipioa bete beharra dago, eta

qualificaciones profesionales, las competencias y las aptitudes horizontales y transversales de las personas mayores de 25 años desempleadas, ocupadas o inactivas, a las que se refieren las directrices del Consejo de la Unión Europea para las políticas de empleo de los Estados miembros correspondientes al año 2001, sin entender incluidas en este contexto las personas ocupadas si éstas pudieran acogerse a los beneficios de la Convocatoria 2001 realizada por Hobetuz, Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua-Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa en el marco del Acuerdo Interprofesional sobre Formación Profesional Continua en la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Acuerdo Tripartito para la Formación Continua adoptados con fecha 28 de septiembre entre el Gobierno Vasco y las Organizaciones Empresariales y Sindicales.

Los proyectos de aprendizaje permanente, podrán ser objeto de actuación interinstitucional, estar participados por los agentes sociales, y serán de dos tipos. De un lado, los que hagan referencia a una iniciativa, acción o actuación específica de aprendizaje a la que puedan acogerse las personas interesadas, de forma individual. Así pues, podrán enmarcarse en esta tipología las actuaciones referidas a las cuentas individuales de aprendizaje (Learning Account), los cheques-inserción etc. De otro lado, los que desarrollen y fomenten iniciativas, acciones o actuaciones de aprendizaje en ámbitos locales o comarcales, que deberán ser presentados por los servicios de orientación calificados a su vez como centros de empleo y ejercer una labor proactiva en la oferta y demanda de este tipo de aprendizaje.

Por otra parte, el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, establece que una vez en vigor los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cada ejercicio económico, se procederá a actualizar, revisar o en su caso establecer las normas reguladoras de la concesión de las subvenciones de los programas y a realizar la convocatoria correspondiente de aquéllas que fueron en su momento reguladas con vigencia indefinida.

Por su parte, el artículo 128 b) del Texto Refundido de las disposiciones legales sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, establece que en periodo de prórroga presupuestaria el Gobierno podrá efectuar subvenciones corrientes o para operaciones de capital, cuya concesión estuviese reconocida en virtud de disposiciones y convenios en vigor y por el importe y bajo las condiciones reconocidas en los mismos.

Por ello, conteniendo el Decreto 284/2000, de 26 de diciembre, actuaciones subvencionales que han sido establecidas con vigencia indefinida o carácter intemporal, se procede a publicar esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco en aras de preservar el principio

horrela, onuradunen izan daitezkeenek programa horien berri izan dezaten bermatuko da.

Hori dela eta, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49.5 artikulua betetzeko eta abenduaren 26ko 284/2000 Dekretuaren 10.3 artikuluan agintzen denez Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak dekretu honetan aurreikusitako laguntzen berri emateko deialdia egingo duela urtero, hau

#### EBATZI DUT:

**Lebenengoa.**— Bizitzan zeharreko ikaskuntza jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen abenduaren 26ko 284/2000 Dekretuan jasotako laguntzak 2001. urtean ere indarrean egongo direla jakinaraztea onuradun izan daitezkeenei.

**Bigarrena.**— Abenduaren 26ko 284/2000 Dekretuaren helburua betetzeko diru-baliabideei dagokienez, 15. artikuluan agindutakora joko da.

Abenduaren 26ko 284/2000 Dekretuaren helburua lortzeko, guztira 200.000.000 PTA (1.202.024,20 euro) erabiliko dira. Horietatik ehun eta berrogei milioi (140.000.000) pezeta (841.416,94 euro) 2001erako ordainketa kreditu baterako; eta hirurogei milioi (60.000.000) pezeta (360.607,26 euro) 2002 urteko konpromiso-kreditu baterako. Zenbateko hori aldatu egin daiteke, indarrean den legediaren arabera aurrekontuetan aldaketak egiten badira.

**Hirugarrena.**— Abenduaren 26ko 284/2000 Dekretuan daude ezarrita diru-laguntzak lortu eta emateko baldintzak.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lebena.**— Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du eta bere aurka interesatuek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Hala agintzen da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Ha-

de publicidad que debe orientar la actividad subvencional de la Administración Pública, garantizando con ello el conocimiento de estos programas subvencionales a favor de los posibles beneficiarios.

Por todo ello, para dar efectivo cumplimiento al artículo 49.5 Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y estando vigente el Decreto 284/2000, de 26 de diciembre, y en ejercicio de la habilitación prevista en el artículo 10.3 del mismo, según el cual anualmente el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social realizará la pertinente convocatoria para dar a conocer las ayudas previstas en el citado Decreto,

#### RESUELVO:

**Primero.**— Poner en conocimiento de los posibles beneficiarios que las actuaciones subvencionales contenidas en el Decreto 284/2000, de 26 diciembre, por el que se regulan ayudas para la realización de actuaciones referidas al aprendizaje a lo largo de toda la vida, se mantienen vigentes durante el año 2001.

**Segundo.**— En lo que se refiere a los recursos económicos destinados al cumplimiento del objeto del Decreto 284/2000, de 26 diciembre, se estará a lo dispuesto en el artículo 15 del mismo.

A los efectos del cumplimiento del objeto del Decreto 284/2000, de 26 de diciembre, se destinará un total máximo de 200.000.000 PTA (1.202.024,20 Euros), distribuido mediante un crédito de pago para el año 2001 de ciento cuarenta millones (140.000.000) de pesetas, (841.416,94 euros) y un crédito de compromiso para el año 2002 de sesenta millones (60.000.000) de pesetas, (360.607,26 euros), cuantía que podrá verse, en su caso, actualizada en el supuesto de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

**Tercero.**— Las condiciones para el acceso y la concesión de las mencionadas ayudas serán las previstas en el mencionado Decreto 284/2000, de 26 de diciembre.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— La presente Orden pone fin a la vía administrativa y contra ella cabe interponer Recurso potestativo de Reposición ante el de Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de conformidad con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o Recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco

la agintzen da Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 10.1 a) eta 46.1 artikuluetan.

**Bigarrena.**– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko martxoaren 21a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

### Zk-1938

AGINDUA, 2001eko martxoaren 21ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuarena, enpleguaren aldeko neurriak arautu zituen ekainaren 29ko 267/1999 Dekretuan jasotako laguntzak eskatzeko 2001eko epea ezartzeko dena.

Enpleguaren aldeko neurriak arautu zituen ekainaren 29ko 267/1999 Dekretua 1999ko uztailaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (135 zk.), eta abenduaren 21eko 441/1999 Dekretuak aldatu zuen (1999ko abenduaren 31ko EHAA, 250 zk.). Dekretu horren bidez, laguntzen esparru bat ezarri zen, Eusko Jaurlearitzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren bidez, diru-laguntzak eman zituzan, Lan Harremanen Kontseiluan hitzartutako aspektu guztiak, batez ere, plantillak ordeztearekin eta berritzearekin zerikusia dutenak, berresteko. Horretarako, laguntza batzuk emango ditu lan-harremana amaitu zaion langileak arauzko erretiro-adina betetzean erretiro-pentsioa oso-osorik jaso dezan, bai eta lan-harremnan hori haustearen ondorioz enpresek beste kontratazio batzuk egin ditzaten. Dekretu honen bidez, halaber, ahalik eta errelebu-kontratu gehien egin nahi da, eta horretarako, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak ezarri dira joandako langilearen ordezkari langabetuak kontratatzen dituzten enprezentzat. Azkenik, enpresetan aparteko orduak kentzearen ondorioz egiten diren kontratuetarako ere diru-laguntzak daude.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen, eta VI. tituluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomia-ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorrak inda-

conforme a lo establecido en los artículos 10.1 a) y 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

**Segunda.**– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de marzo de 2001.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

### Nº-1938

ORDEN de 21 de marzo de 2001, del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, por la que se procede a publicar la vigencia durante el año 2001 de la actuación subvencional contenida en el Decreto 267/1999, de 29 junio, por el que se regulan las medidas de apoyo al empleo.

Mediante el Decreto 267/1999, de 29 junio, por el que se regulan las medidas de apoyo al empleo, publicado en el BOPV n.º 135, de 16 de julio de 1999, y modificado por el Decreto 441/1999, de 21 de diciembre, (BOPV n.º 250, de 31 de diciembre de 1999), se procedió a establecer el marco de ayudas que el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, puso en práctica para refrendar, desde una vertiente subvencional, el acuerdo alcanzado en el Consejo de Relaciones Laborales en todos sus aspectos, y, especialmente, en lo referente a la sustitución y renovación de plantillas, para lo cual establece una línea de ayudas destinada a contribuir a la percepción en su integridad de la pensión de jubilación a que hubiesen tenido derecho al cumplir la edad reglamentaria de jubilación de aquellos trabajadores que se retiren de la actividad laboral, así como al fomento de nuevas contrataciones como consecuencia de la extinción de la relación laboral mencionada anteriormente. Igualmente, este Decreto pretende incidir en la mayor consecución de contratos de relevo, para lo que establece subvenciones a fondo perdido para aquellas empresas que contraten a desempleados con el fin de sustituir al trabajador relevado, y, por último, refleja como actuación subvencionable aquellas contrataciones producidas como consecuencia de la eliminación de las horas extraordinarias en las empresas.

El Título VI del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, establece que se procederá a actualizar, revisar o, en su caso, establecer las normas